

Bisita ugari jasotzen ari da Tolosako haur liburutegian antolatu duten irudi erakusketan

Tolosa.

Errotako haur liburutegiak egitasmo berri bat jarri du martxan. Tolosako haurrek Sirenatxoa ipuina landu dute eta, ondoren, istorio horri buruzko marrazkiak egingo dituzte. Liburutegira bidali eta erakusketa bat antolatu dute jasotako irudiekin. Hilaren 23a bitarte, Liburuaren Nazioarteko Eguna, ikusgai izango dira marrazkiak eta aste honetan bisita ugari jasotzen ari dira liburutegian, haurrek oporraldia dutelako. Errotako arduradunek jakinarazi dutenez, jasotako marrazkien egileen artean liburuak zozketatuko dituzte. Bestalde, urtero bezala, Liburuaren Nazioarteko Egunean, liburua maileguan eramaten duten haurrek piruleta bana jasoko dute.